



**orereta
ikastola**
AURRERA!

DBH: GAI OSAGARRIAK INFORMAZIO XEHEA

Frantsesa	Euskaldun eleanitzak bultzatzea izango du helburu irakasgai honek.
Adierazpen artistikoa	Irakasgai honen helburu nagusia da ikasleei adierazpenerako eta sorkuntzarako hurbilketa erraztea, eta haiei beste modu batera begiratzeko, jarduteko eta egiteko duten ausardia bultzatzea, norberaren baliabideetatik eta erreferente kultural eta artistikoetatik abiatuta sortzeko jokabidea sustatuz eta ikasleak artean, artearen bitartez eta artearengatik emozionalki inplikatzuz.
Digitalizazioa	DBHko lehen hiru mailetan, Teknologia eta Digitalizazioa irakasgaiak konpetentzia digitalaren ezagutzak finkatzen ditu, eta DBH 4. mailako Digitalizazioa irakasgaiak, berriz, herritartasun digital aktibo eta konprometitu gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren gaiak lantzen ditu. Erronka horien artean, honako hauek aipa daitezke: inguratzen gaituen informazio kantitate handia prozesatu eta aztertzea eta ezagutza berri bihurtzea, eta IKTen erabilera segurua, kritikoa, arduratsua eta iraunkorra egitea, besteak beste.
Musika	Irakasgai honetan, musika garapenerako funtsezkoak diren hainbat tresna eta kontzeptu aztertzen dira. Musika konposizio eta ekoizpen programen erabileratik hasi eta musika-hizkuntza naiz harmonia eta instrumentu-interpretaziorako oinarritzko nozioak ikasteraino. Irakasgai honek esperientzia integrala eskaintzen die musikazaleei eta soinu-sorkuntzaren munduan sartu nahi dutenei.